

GIURU TXULO

Donostiako astekaria

Euskaldunon Egunkaria:

Konpromiso garaia

Josepe M. de Albeniz



Gai libreak

Maite Gonzalez Esnal

Bella Easo erreginaz

atu ala ez gustatu, ezin dugu ukatu gure Do-
a maitearen iragan monarkikoa; ugariak dira-
ztarnak. Lerro hauek idatzi orduan, Erreginaren
a bosgarren aldiz moztu dutela jakin dut. Baina
este erreginaz idatzi nahi dut. Bat nator Xabier
jik, duela aste batzuk zutabe honetan bertan,
zu zuenarekin. Ados nago soldadu uniformeak,
iak eta estetika militarista hori kontraesan han-
ela soldaduskari uko egin ziotenentzat. Zahar-
utsua duela gehituko nuke nik.

erean, zaharkitua deritzot Bella Easo-aren
ra donostiarrari. Zertara datoz erreginaren
txoak? Ez dezagun ahantz Donostiatik hogei
etrora alardeak aldatzeak zer nolako urra-
k eragin dituen. Zer pentsatua eman beharko
e. Garaiz gaude. Alda ditzagun ohitura sexis-
Voiz ohartuko gara ohitura horiek mantenduz
o txobolakerien arrastotik jarraitu eta gizar-
osilizatu besterik ez dugula egiten? Zergatik
atu behar ditugu neskak horiek txikitatik ir-
re eta musuak bidaltzea? Egitekotan, egin
gun denok barre eta musu, antzerkia neskati-
skuetan utzi gabe.

te jaanari proposatzen diot egin dezala mo-
hitura horren —tradizioa oraindik ez dut us-
katea eten dadin.

na, donostierra naizenez gero, ez dut zeru hori
ro. Seguru nago egon badagoela Bella Easo-
a oso serio hartuko duenik. Auzo bazterreko
aren abantaila dut aldeko: halamoduzko do-
iarrak garenez, hiriaren mitoak ez ditugu hain
n sentitzen. Udatiarren laudorioek ez gintuz-
ausengatu, horregatik ez dugu nostalgirik.
zera gara gu. Ulia zen gure hiria, gure Aste
isia mugatzen zen su festak Ategorrieta urru-
teillatu batetik ikustera. Hiria zubia pasata
en baitzen.

ka haurren artetik Bella Easo bat hautatu be-
zatea birziklatu beharreko ohitura da. Hona
en gure Irutxulo maiteari lobby bat martxan
ezan ideia.

- 4 Hiri Miri • 6. Zeresana emango du:
- Hemen dira inauteriak!**
- 8. Auzoz auzo: **Ibaetako jaiak**
- 14. Luze zabalean: **Egunkaria itxita;**
tortura salaketak eta konpromiso garaia
- 24. Elkarrizketa: **Agurtzane Otegi**
snowboard kirolaria
- 26. Kultur Leihoa: **Tango doinuak**
Antzoki Zaharrea
- 28. Zinema • 31. Kultur agenda



Txulotik

Konpromiso garaia

Duela 13 urte Egunkaria sortu zen milaka euskaltzaleren laguntzari esker, eta zori-
txarrez, berriro ere beharrezkoa da euskaltzale guztion babesa, Euskal Herriak
euskarazko egunkaria izan dezan. Egunkariari egindakoa, ordea, aspaldi hasitako
eraso baten azken zartakoa da. Izan ere, hainbat komunikabidek, epailek edota alderdi
politikok aspalditik dihardute euskararen normalizazioaren zutabeen aurka: AEK, ikasto-
lak, argitaletxeak... Ezin gara isilik egon, erantzun egin behar da. Eta erantzunik onena
indarrak batzea eta lanari ekitea da. Hor ditugu, adibidez, Egunkaria laguntzeko Donos-
tiako auzoetan sortzen ari diren batzordeak. Konpromiso garaia heldu da, beraz.



Irutxulo: Pedro Egaña 2-1 esk, 20006 Donostia.
Argitaratzailea: Donostiako Komunikabideak E.M., Pedro Egaña 2-1 esk. 20.006 Donostia.
Zuzendariak: Ander Usabiaga eta Aitziber Iartza.
Erredakzioa: Ainhoa Irazu, Raul Perez, Ander Usabiaga eta Aitziber Iartza. Tel: (943) 46
72 36. Faxa: (943) 44 65 32. • e-mail: irutxulo@bagera.net. Argazkilaria: Josune Martinez de Albeniz.
Diseinua: Eneko Abrego. Maketazioa: Inge Mendioroz. e-mail: ingemendioroz@bagera.net • Publizitatea:
Maria Albillos eta Eli Belaustegi. Tel: (943) 45 72 50 • e-mail: publizitatea@bagera.net Kudeaketa: Ane Irazu
Tel: (943) 45 51 38. Harpidetzak: Ernesto Ibarluzea.
Korrespontsalak: Alex Aisa (Igeldo), Gari Otamendi (Añorga), Aitziber Gurutzeaga eta Shandra Castillo
(Egia), Xabier Etxabe (Gros-Ulía), Mayi Tolosa (Erdialdea), Urtzi Etxeberria (Amara Berri), Borja Ruiz (Parte
Zaharra), Erika Erkizia (Antigua), Laida Basurto (Bidebieta), Aitor Urkizu Azuabarrena (Martutene) eta Sara
Soria (Aitza eta Herrera).
Kolaboratzaileak: Karlos Lozano, Mattin, Xabier Zaldúa, Xabier Otaegi, Ainhoa Etxebeste, Igor Usabiaga,
Iñaki Lazkano, Ander Lasa, Ricardo Aldarondo, Koldo Landaluze, Luix Barinagarrementeria, Ixiar Rozas,
Maite Gonzalez, Xabier Rubio, Aritz Gorrotxategi, Juan Kruz Mendizabal, Iñigo Lamarca, Orreaga Aranburu
eta Jon Odriozola.
Erredakzio kontseilua: Luis Fernandez, Iñaki Iturain, Arantxa Kaltzada, Marije Manterola, Josu Landa,
Eduarne Otamendi, Jone Dorronsoro, Ander Usabiaga, Aitziber Iartza, Alex Aisa eta Alberto Irazu.
Tirada: 5.000 ale. Inprimategia: Antza. Lege gordailua: SS-246/94 ISSN: 1134-0517.
Copyright: IRUTXULO Donostiako Astekaria.
IRUTXULOek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esaneren eta iritzien erantzukizunik.

Donostiako Euskaltzaleen Elkartearen ekimenez egina

Pedro Egaña 2-1 esk 20006 - Donostia
Tel.: (943) 46 71 81. Faxa: (943) 44 65 32
e-mail:
idazkaritza@bagera.net • mintzalaguna@bagera.net

Aldizkari honek erakunde hauen
laguntza jaso du:



Donostiako Euskararen
Udal Patronatua



Gipuzkoako
Foru Aldundiko
Kultura Departamentua



Eusko Jaurlaritzako
Kultura Saila

Egunkaria behar dugu

Euskaldunon Egunkaria itxi dutela eta, agiri hau sinatzen dugun euskara elkarte eta herri aldizkariak honakoa adierazi nahi dugu:

- Deigun nahi diegu euskalgintzari eta euskal gizarte osoari eraso larri hau salatzen.
- Euskararen normalizazioaren eta euskal prentsaren alde lanean jarraitzeko konpromisoari tinko eutsiko diegu.
- Euskal Herriak euskarazko egunkaria behar du, ezinbesteko tresna baita

gure hizkuntzaren normalizaziorako. Euskaldunon Egunkariako langileek euskarazko egunkaria kaleratzen jarraitzeko asmoa dute. Beraz, euskal herritar guztien laguntza beharko dute. Ildo horretatik, guk ere laguntza eskaini eta konpromiso irmoa adierazi nahi diegu, euskarak eguneroko eta Euskal Herri osoan ahotsa izan dezan.

Euskaldunon Egunkaria itxi izana euskararen, euskal prentsaren eta adierazpen askatasunaren aurkako eraso da.



Sinatzaileak

Bagera Donostiako Euskaltzaleen Elkarte eta **Irutxulo** astekaria (Donostia)
Hitzaro elkarte (Ordizia)
Manuel Larramendi Kultur Bazkuna eta **Aiurri** aldizkaria (Andoain)
 ..**Eta Kitto!** Euskara Elkarte eta ... **Eta Kitto!** aldizkaria (Eibar)
Lagatzu Euskara Elkarte (Zamudio)
Aikor aldizkaria (Txorierri)
Anboto astekaria (Durangaldea)
Arrikikili Larrabetzuko Euskara Elkarte (Larrabetzu)
Ttipi-Ttapa aldizkari eta telebistako langileak (Bera)
Irun Iruten Euskara Elkarte (Irun)
Lau Haizetara Euskaldunon Elkarte eta **Lau Haizetara** aldizkaria (Errenteria-Orereta)

Berton aldizkaria (Mahatserría)
Berbaizu Euskara Elkarte eta **Prest** aldizkaria (Deustu)
Pil-Pilean Euskara Elkarte eta **Pil-Pilean** aldizkaria (Soraluze)
Euskal Birusa Euskara Elkarte eta **Drogeteniturri** aldizkaria (Ermua)
Txatxilipurdi Euskara Elkarte (Arrasate)
Maxixatzen Euskara Elkarte eta **Maxixatzen** aldizkaria (Azkoitia)
 Elgoibarko **Izarra** Euskara Elkarte eta **Barren** astekaria (Elgoibar)
Karkara Euskara Elkarte (Orio)
Txaparro Kultur Elkarte eta **Txaparro** aldizkaria (Zarautz)
Goieritarrak Kultur Elkarte (Ordizia)
Asapala Kultur Elkarte (Mahatserría)
Dobera Euskara Elkarte (Hernani)

Jardun Euskara Elkarte (Bergara)
Goiena Komunikazio Zerbitzuak (Debagoiena)
Karrikaluze Euskara Elkarte (Atarrabia)
Orratz! Kultur Elkarte (Lezo)
UK Uribe Kostako aldizkaria (Getxo)
Bizarra Lepoan Euskara Elkarte (Getxo)
Euskarabila Euskara Elkarte (Basauri)
Loramendi Euskara Elkarte (Aretxabaleta)
Danbolin Zulo elkarte (Zestoa)
Arrasate Euskaldun Dezagun-AED elkarte (Arrasate)
Berbaro Euskara Elkarte (Durango)
Uztartzen Euskara Elkarte eta **Uztarría** aldizkaria (Azpeitia)
Topagunea Euskara Elkarten Federazioa


Tortura salaketa latzak

Euskaldunon Egunkaria-
ren aurkako operazioan
atxilotutako hamar lagu-
netatik bost espetxeratu
egin dituzte, lau berme-
pean aske dira eta Zubi-
riak, lerrok idazterako-
an, ospitalean inkomuni-
katuta jarraitzen zuen.
Atxilotuetako batzuek
tortura testigantza la-
tzak zabaldu dituzte.

Euskaldunon Egunkariaren aurkako operazioan atxilotutako hamar lagunetatik bost espetxean daude, Juan del Olmo Espainiako Auzitegi Nazionalako epailearen aginduz. Haietako bat, Txema Auzmendi, Donostiako bizilaguna da. Auzmendi Egunkariako Administrazio Kontseiluko kidea da. Horrez gain, jesuita, Herri Irratiko esataria eta bagerakidea da. Espetxeratutako gainontzeko lau lagunak Iñaki Uria Euskaldunon Egunkariako kontseilari ordezkaria, Xabier Oleaga zuzendariorde izandakoa, Joan Mari Torrealдай Administrazio Kontseiluko lehendakaria eta Xabier Alegria Udalbiltzako kidea dira.

Guardia Zibilak atxilotutako beste lau lagun -Martxelo Otamendi zuzendaria,

Gorka Knorr EAko burua Martxelo Otamendi besarkatze, Egunkariaren atarian.



16



Fermin Lazkano eta Inma Gomila gerente ohiak eta Luis Goia Egunkaria Sortzeneko kidea- kalean dira, fidantza ordaindu ondoren; 12.000 eta 30.000 euro arteko fidantzak.

Testigantza beldurgarriak

Martxelo Otamendi Egunkariako zuzendaria, Soto del Realeko espetxea utzi bezain laster, Guardia Zibilaren esku jasandakoaren berri eman zuen. *"Pistola buruan jarri eta tiro egiten zuten, boltsa bi aldiz egin didate, larru gorritan jarri eta lau hanke-*

tan ibiliarazi naute, milaka ariketa fis eginarazi dizkidate, errespetu falta ika garria izan da", azaldu zuen Martxelo Esaterako, 500 bat aldiz errepikarazi zuten Espainiak Irundik Algecirasera eta Ferratetik Roseseko lurmuturrerainoko rraldea hartzen duela. Otamendi, konketa egiten zuen bitartean, negarrari eutsi ibili zen, eta bere aurpegia jasan koaren ispilu zen.


Otamendik, gainera, guardia zibilek an Mari Torrealдай *"egurtu"* egin zutela

Zubiriarengatik kezka

Lerrok idazterakoan, Pello Zubiria Egunkariako lehen zuzendari izandakoak eta Argiako zuzendaritza ondokoak erietxean jarraitzen zuen inkomunikazio judizialpean. Beraz, inork ez zuen haren egoeraren berri. Pellok gihar eta hezurretako gaixotasun larria du.


Pellori buruz beste atxilotuek esandakoa benetan kezagarria da. Luis Goiak eta Inma Gomilak azaldu dute Peloren oihuak entzun zituztela. Goiak azaldutakoaren arabera, *"kolpeak eta Peloren oihuak eta aieneak entzuten*

nituen. 'Ez al dizut esan paretaren kontra egoteko', 'hilko zaitut' eta antzekoak esaten zizkieten. Une batean Pellok berak 'hil nazazue potroa badituzue' esan zien". Gogoratu beharrezkoa da Pellok, duen gaitzaren ondorioz, apenas ibiltzeko gai dela eta oina ze handia izaten duela.




Delitu zehatzik gabe, espetxean


Txema Auzmendi



Joan Mari Torrealdai




Xabier Oleaga



Iñaki Uribe



Xabier Alegria



Espainiako Auzitegi Nazionaleko Juan del Olmo epaileak asteartean kaleratu zuen bederatzia atxilotuen inguruko espetxeratze autoa —Pello Zubiriari buruzko erabakia beste auto batean hartu du—. 12 orrialdeko auto horretan zehaztasun eza da nagusi.

Egunkariak ETarekin lotura duela esateko, ustezko

zenbait etakideri 1990etik 1993ra atzemandako agiriak aipatu ditu epaileak. Agiri horiek berak erabili zituen Baltasar Garzon epaileak Egin ixteko eta bertako arduradunak auzipetzeko. Pasarte batzuk hitzez hitz errepikatzen dira. Hau da, garai hartan Egin esan nahi zuen klabe ezkutuak, oraingoan, Egunkaria esan nahi du. Agiri horieta-

rik, gainera, ondoriozta liteke ETak Egunkariaz gogoeta egin zuela eta Egunkariako zuzendaritzako pertsona batzuei buruz hitz egin zuela. Ordea, inondik inora ezin da ondorioztatuta atxilotuek ETarekin harremana izan dutenik.

Atxilotuei "talde terroristako kide izatea edo bere kasuan laguntza ematea" lepo-

ratu die epaileak. Salaketa hori zergatik egiten duen ez da inon esaten. Are gehiago, arrazoitze juridikoa ematerakoan, zenbaitzuen izena behin edo bitan baino ez da azaltzen, esaterako, Txema Auzmendiarena. Gainera, Egunkarian osaketarekin lotutako paper ofizialetan azaltzen direla esaten da, besterik gabe.

kinarazi zuen. Hau Luis Goiak ere berretsi du. Goiak asteartean, espetxean, Torrealdarekin egoteko aukera izan zuen, eta azaldutakoaren arabera, Torrealdai jo egin dute, kantzontzilotan galdeketak egin dizkiote, barrabiletan erregla batekin kolpeak eman dizkiote...

Txema Auzmendik jasandako tratua inguruko berri zuzenik ez zegoen lerrook idazterakoan, baina, dirudenez, berak jasandako tratua ez da hain bortitza izan.

Atxiloteta honen harira, Gipuzkoako bikario nagusiak sinesgarritasun osoa eman die tortura salaketei eta honakoa gaineratu du: "Sinesten dut hemen sistematikoki torturatzen dutela oraindik ere, eta gizar-teak zerbait egin behar du".

Fermin Lazkanok, Inma Gomilak eta Luis Goiak tratua bortitza izan dela esan dute, baina ez dituztela jo gaineratu dute. Torturen lekuko, ordea, izan dira.

Asteazkenean, abokatuek espetxeratutako hiru lagunekin -Iñaki Uribe, Xabier Oleaga eta Xabier Alegria- egoteko aukera izan zuten, eta eman dituzten testigantzak ere oso kezagarriak dira.

Abokatuek azaldu dutenez, Iñaki Uriak kontatu die Guardia Zibilaren esku egon den bost egunetan askotan biluztu dutela, boltsa bezala ezagutzen den tortura askotan aplikatu diotela, flexioak eginarazi dizkiotela, pistola buruan jarri eta tiro egiten



Martxelo Otamendi Egunkariako zuzendaria Arnaldo Otegi, Joseba Permach eta Karmele Aierbe Sozialistak Abertzaleak taldeko kideekin.

Josune Miz. de Albeniz

zutela, bildutako egunkari batekin kolpeak bata bestearen atzetik ematen zizkiotela... Horri maila psikologikoan egindako presioa gehitu behar zaio: mehatxuak, etengabeko galdeketak, Martin Ugalde miaketan hil zela esaten zioten...

Xabier Oleaga lehenengo egunean ziegan izan zuten, ukitu gabe. Bigarren egunean, ordea, Uriaren oihuak entzun zituen, eta ate joka hasi zen, Uri bakean utz zezaten eskatuz. Une horretan ziega horretatik atera eta biluztu egin zuten, eta biluzik zela, 'errueda' egin zioten (guardia zibilez osatutako borobil batean jarri eta bata besteari kolpeka pasa), flexioak eginarazi zizkioten, pistola buruan

jarri eta tiro egin zioten... Gehiago jasan ezin zuten une batean, guardia zibilei esan zien deklaratzeko prest zela, baina, bidean, deklaratzeko ezer ez zuela ohartuta, ez zuela deklaratu esan zuen Oleagak. Une horretatik aurrera tratua are eta bortitzagoa izan zen. Oleagak epailearen aurrean salatu zuen jasandako tratua, baina epaileak ez zion jaramonik egin, bere abokatuek adierazi dutenez.

Xabier Alegriak abokatuak jakinarazi die boltsa egin diotela, kolpeak jasan dituela, flexioak eginarazi dizkiotela, zutik egonarazi dutela eta galdeketak etengabeak izan direla. Hala ere, abokatuaren arabera, Alegriak ez zuen indarririk zehaztasunetan sartzeko.